

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2022ko urtarrilaren 27a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:05

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Ainara Munduate Iguaran zinegotziak (EH Bildu) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 1/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 2/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, 2021-2023ko dirulaguntzen plan estrategikoa.
- 4.- Onartzea, egoki bada, 2021-2023ko inbertsio-plana.
- 5.- Onartzea, egoki bada, udal-langileen ordainsarien 2022rako igoera eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien igoera.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Biziberritze Plana.
- 7.- Onartzea, egoki bada, baldintza administratiboen eta baldintza teknikoen agiriak, Orioko udal-kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitze obrak kontratatze prozedura ireki sinplifikatu bidez.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 1/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 1/2022 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 82.774 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko urtarrilaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA udal-aurrekontu propioaren 1/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 82.774 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailtza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteke aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeke arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteke lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 2/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2/2022 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 904.561 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko urtarrilaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA udal-aurrekontu propioaren 2/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 904.561 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2021-2023KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko urtarrilaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2021-2023ko dirulaguntzen plan estrategikoari.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailatza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hogeita hamar lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, 2021-2023ko dirulaguntzen plan estrategikoa onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2021-2023KO INBERTSIO-PLANA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko urtarrilaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA 2021-2023ko inbertsio-plana.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LANGILEEN ORDAINSARIEN 2022RAKO IGOERA ETA KARGUA DEDIKAZIO OSOAREKIN EDO PARTZIALAREKIN BETETZEN DUTEN UDAL-KORPORAZIOKIDEEN ORDAINSARIEN IGOERA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Igoera horren oinarrian Estatuaren 2022ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 19.2 artikuluan ezarritakoa dago.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Pertsonal-batzordeak 2022ko urtarrilaren 13an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udal-langileen ordainsarien 2022rako igoera eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien igoera. Igoera honela aplikatuko da:

(...) Bi. 1. 2022. urtean, sektore publikoko langileen ordainsariek ezingo dute %2ko igoera globala baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunaren terminoetan, bai langilekopuruari dagokionez, bai antzinasunari dagokionez.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BIZIBERRITZE PLANA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Plan honen bidez, ekintza-plan bat zehaztu da, lagunduko duena Orioko ekonomia epe laburrean eta modu eraginkorrean berreskuratzen, hau da, Oriok gaur egun dituen baliabideak ahalik eta hobekien aprobetxatuz. Horretarako, lehenik eta behin,

egoeraren diagnostikoa egin da maila makroan eta mikroan, eta Orioko eskaintza eta eskaera potentziala aztertu dira.

Planaren helburua da herritarren beharrei erantzutea eta haien ongizatea bermatzea.

Horretarako, planaren diseinuan, tokiko eragileek, erreferentziazko pertsonak eta herritarrek parte hartu dute. Hainbat alorretako 40 pertsona eta eragile ingururi elkarrizketa sakonak egin zaizkie, diagnostikoan eta ekintza-planean sakontzeko.

Biziberritze Planaren erronka nagusia Orioren balioa handitzea da, herriak daukan aberastasun soziala, kulturala eta ekonomikoa handituz. Planaren ardatz estrategikoak hiru izango dira: Itsasadarra, Euskara eta Jasangarritasuna.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-batzordeak 2022ko urtarrilaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko Biziberritze Plana.

Emandako botoa azaltzeko, Bakarne Oriden zinegotziak hartzen du hitza, Turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-batzordeko presidentea den aldetik, eta adierazten du Orioko Biziberritze Plana idaztearen helburuetako bat turismo-planari ekitea zela, kultura, euskara eta abarri buruzko gaiak jorratuz, eta, beraz, falta den bakarra dela herritarrei landutako planaren berri ematea. Adierazten du jendaurreko azalpen hori otsailean egingo dela, oraindik zehaztu gabeko egun batean. KULTUR ATELIER entitateak egingo du aurkezpen hori.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK, ORIOKO UDAL-KANPINEAN AISIALDIKO IGERILEKUA ETA UR-PARKEA ERAIKITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-batzordeak 2022ko urtarrilaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA baldintza administratiboen eta baldintza teknikoaren agiriak, Orioko udal-kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeoko obrak kontratatzeoko prozedura ireki sinplifikatu bidez.

Emandako botoa azaltzeko, Bakarne Oriden zinegotziak hartzen du hitza, Turismo-merkataritza- eta ostalaritza-batzordeko presidentea den aldetik, eta adierazten du aipatutako obrak kontratatzeoko lehenengo lehiaketa publikoan ez zela eskaintzarik

aurkeztu eta, beraz, lehiaketa hura bete gabe geratu zela; hori dela eta, oraingo honetan, aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeke obrak kontratatzeke baldintza-orriak prozedura ireki sinplifikatu bidez egitea erabaki du Udalak.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkateak hartzen du hitza eta hau adierazten du:

- Espero duela, eta hala nahi duela, Orioko udal-kanpineko aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeke lanen kontratazioa arrakastatsua izatea.
- Espero duela Orioko Biziberritze Planak balio izatea oriotarrak harro sentitzeko beren izaeraz eta nortasunaz, eta udalerri dinamiko bat sortzeko, horretarako idatzi da-eta.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,